

## Mailako probak

### Probaren izaera

- a.- Mailako proba hauen helburu nagusia ikasleen euskarazko hizkuntza gaitasuna neurtzea eta ziurtatzea da; hots, proba hau gaindituz gero, ikasleari zein euskara maila duen dioen ziurtagiria emango dio Zubiarte euskaltegiak. Proba hau ikasleak erabil dezake bere euskara maila zein den jakiteko.
- b.- Mailako probara aurkez daitezke Zubiarte euskaltegiko ikasleak.
- c.- Probak ekainean egingo dira.

### Mailen deskribapena

- a.- Zubiarte euskaltegiak bost maila ematen ditu. A1, A2, B1, B2 eta C1.
- b.- Mailako probak, hala ere, ez dira maila guztietan; momentuz hauexek antolatu ditugu:

A1	A2	B1	B2
----	----	----	----

### Proben baldintza orokorrak

#### a.- Izena emateko prozedura.

- Mailako probetara aurkez daitezke Zubiarteko ikasleak. Zubiarteko ikasleak dira ikasturte berean matrikula egin dutenak (bai irailetik - otsailera, bai otsailetik- ekainera).
- Probara aurkeztu ahal izateko **izena eman beharko dute aurretik**.
- Probara aurkezteko ez da ordaindu behar.
- Probara aurkeztu behar duten ikasleek beren izena eta zein probatara aurkeztu nahi duten adierazi beharko dute Zubiarte euskaltegiko idazkaritzan.

#### b.- Azterketak egiteko baldintzak

- Azterketa bat eta osoa bada ere, bi egunetan burutuko da: entzun-idatzizkoa, bata; eta ahozkoa, bestea.
- Ikasleek beren nortasuna ziurtatuko duen agiriren bat aurkeztu beharko dute.
- Azterketara garaiz heltzea nahitaezkoa izango da; behin proba hasita ez da ikaslerik sartuko.
- Idazteko materiala izan ezik ez dute beste materialik izango (liburu, hiztegi, ...)
- Azterketa bukatutakoan probako material guztia mahai gainean utziko dute eta aztertzaileek jasoko dute.
- Ahozko azterketa beste egun batean egingo dute aurretik zehaztutako orduan eta lekuan.

#### c.- Emaitzak jakinarazteko prozedurak

- Emaitzak Zubiarte Euskaltegiaren ohar-taulan jarriko dira.
- Emaitzetan ikasleen izen-abizenak, egindako proba eta **gai / ez gai** azalduko dira.
- Emaitzak jakinarazita proba gainditu dutenek beren ziurtagiria eska dezakete Zubiarte euskaltegiaren idazkaritzan.
- Azterketa atal bakoitzeko emaitzak ez dira gordeko hurrengo deialdietarako.

#### d.- Erreklamazioak egiteko prozedurak

- Emaitzarekin ados ez dagoenak erreklamazioa egin dezake bere proba berrikusteko.
- Erreklamazioa idazkaritzan egingo du, emaitzak jakinda, zehaztuko den egunetan. Ondoren, azterketa berrikusteko ordua emango zaio.
- Ahozko proba ezingo da berrikusi, grabaturik ez badago. Ikasleek ezingo dute azterketa eraman.